

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure aplikazioa ondo funtzionatzeko funtsezko baliabideak behar ditugu. Baliabide hauek beharrezkoak dira aplikazioa ondo funtzionatzeko.

Baliabide fisikoei dagokienez, sistema informatiko bat behar dugu gure aplikazioa garatzeko. Baliabide hauek oso garrantzitsuak dira, gure proiektua aplikazio digital bat delako eta modu digitalean bakarrik funtzionatuko duelako. Horregatik, funtzionamendu egokia izatea ezinbestekoa da, gure diru iturri bakarra ingurune digitalaren bidez lortuko dugulako, eta ez modu fisikoan.

Giza baliabideak kontuan izanda, oso garrantzitsua izango da aplikazioa erakargarria eta erabiltzeko erraza izatea. Horretarako, aplikazioaren diseinua landuko duten pertsonak beharko dira, gainera pertsona gazteei zuzendua dagoen aplikazioa denez, aplikazioak itxura egokia eta erakargarria izatea funtsezkoa izango da berezo gehiago lortzeko. Aplikazioa ondo funtzionatzen duela ziurtatuko duten pertsonak egotea ere beharrezkoa izango da, adibidez aplikazioan txat bidezko laguntza-zerbitzua egon daiteke erabiltzaileek haien zalantzak edo arazoak idazteko eta horrela laguntza jasotzeko. Azkenik, ikasketa munduan eta teknologian ezagutza duten pertsonak edukitzea baita ere beharrezkoa izango da aplikazioaren kalitatea eta edukia hobetzeko.

Finantza baliabideak kontuan izanda, aplikazioa garatzeko, bere funtzionamendua bermatzeko eta promozionatzeko (marketing-a erabiliz) dirua beharrezkoa izango da (softwarearen gastuak, publizitatea edo langileen soldatak). Finantza baliabideak behar ditugu gastuak ordaintzeko. Gure diru iturri nagusiak hauek izango dira: Ordainketa bidezko bertsioa eta aplikazioa erabiltzean iragarkiak ateratzea.